

# LEZO-EDESTIYA

(Aurtengo euskal-indar-neurtzeetan aldeera irabazia)

**A**SPALDITIK gipuzkoarrak izan dute gizon argi ta burutsuen izen ona. Bakoitzak bere buruba goratzea ez omen da ondo egiña, bañan diran bezela egiyak azaltzia ezta beñere gaizki egiña izan. Argatik guk gure alderdi onak pozez goratuarren, bildur gabe garbi



LARRAMENDI AITA

esango ditugu gure aurrekuak eta guk egin ditugun okerrak. Oker oyetan aundiyen-aundiyena, noski, gure aurrekuen izaera, egitazko bere izaera, bere oitura, bere egite, bere biyotz eta gogo denak biar bezela ez ezagutzia izan da. Gipuzkoarrak iya galdu dute bere antsiñako lege ederren oroipena ere. Lotsagarri izanarren, esan diteke geren buruba ezte-gula ezagutzen. Gaitz au ezta oraingua: XVIII garren eunkiyen Larramendi andoaindar jakintsubak sendo asko ziyon gipuzkoarrak beste erriyetako gauzak jakiñarren, emenguak, etxeukuak etzekizki-

tela. Auxe izan da gure galpenaren sustrai bakarra.

Ondarrabi'ko erriyan 1766 garren urtian izandoko Batzar nagusi-

yetan, erri bateko bialdubak esan zuen gure erriyak biar zuana *bere buruba ezagutzia zala*; Batzar nagusiyak itz oyek ontzat arturik al zan guziya asmo eder onen aldez lenbailen egitia erabaki zuen; bañan one-la erabakiarren etzan ezertxo ere egin.

Gipuzkoa'k izan ditu izen aundiko bi ikastetxe, bata Oñati'n, bestia Bergara'n, bañan oyetan gauz asko erakutsiarren gure erriyari zerizkiyon gauzik etzuten erakutsi. Geroztik izan diran gudaldiyak ondasun ta biyotzera kalte izugarriyak ekarriarren kalte aundiaguak ekarri dituzte gipuzkoarren buruetara.

Bañan biyotza sendo dagonian beñere ezta berandu. Urte batzuetatik onuztik gure gauzen aldez ekiteko gogo bizi, suz betetako batek indar artzen ari da, ta guk, pixka izanarren, gure pitiña ere eraman nai degu.

Orain urte batzuek dirala, Arrasate'n (Mondragón) bizi dan jakintsu *Gerra* jaunak, Oñati'ko erriyari izan ziran Euskal-jai-aldietan ziyon: lotsagarri da Oñati'ko erri zarraren edesti-kondaira ikusgarri ta ikasgarriya idazti-liburu eder batian biar bezela ez agertzia. Bañan, ziyon, nik nai detena ezta burruka, aserre, iskanbill ta odol-ixurtze ikaragarriyen edestiya, baizik erri artako lege bereberiak, oiturak, izaera, bere barrengo edesti osua. Eta ala ere Oñati'k bere edesti liburu ori oraindik eztu.

Gipuzko guziko erri bakoitzeko edestiyak bagiñitu Gipuzko osoko edestiya ere bagendu.

Guk ere ba, len esan degun bezela, gure pitiña, gure apurra eraman dezagun eta gure biarra betia arkituko da. Asmo onetxek gakarkigu.

Bañan, batetik, ezin utzi ditugun egitekuak eta, bestetik, beta gutxi izatiak lan au nai bezela egitia galerazten digu.

Eta gaya, ezin politagua izan: *Lezo-edestiya*. Lezo erri alai ta polita nun ta zein tokitan argitzen dan, bere mendi ta iturri, izen aundiko bere etxe nagusiyenak batetik (gorpuz-aldia esango bagendu bezela) eta bestetik, noiztik azaltzen dan, bere egite ezagungarriyenak, bere lanak, bere izaera, bere Gurutze maite ta ospetsuba (biyotz-aldia esan-



LOPE M. ISASTI



## ONDARRABI'KO URIA

go bagendu bezela), lan asko egiteko gaya ematen digute.

Ta beta gutxi ta urriya degunezkero asi gaitezen.

\*  
\* \*



Lezo-erriya Jaizkibel-mendiyaren oñian arkitzen dan muño baten ganiñan dago. Bertara Oyartzun-ibaya igarotzen da mako lirain bat egiñaz.

Bere mendeko lurrak bi legua ta erdi inguru dituzte. Donosti'tik bederatzi kilometrora dago.

Alde batetik Oyartzun ta Ondarrabi dauzka, bestetik Pasaya; Egoaldetik Errenderi, eta Lezo'ren mendeko lurrian dago Errenderi'ko erriyak daukan burnibideko gelditokiya; Jaizkibel-mendiyak Ipar-aldeko aize otsaz babesten du.

Lezo'ko mendi guztiya arrobi areatsuz ondo josiya da; berak ematen dituzte arlantzako eta baita ere errotarri aundi ederrak.

Ur garbiya yori ematen duten iturri gezagozo asko Lezo'ko mugapian jayotzen dira: oyetatik iru oberenak Lakosta, Puntal ta Olazar izena dutenak erriyaren inguruban txit gertu arkitzen dira; berak ematen dituzten uraz ordu-erdiko bidastiyan bost latsa, bost erreka egiten dira: Zaroizar, Baintza, Uronekoa, Binkuda ta Molinos. Denak Lezo'ko ibaira jesiten dira. Ibai oni Oyartzun-ibaya deritzayo ere Ayamendi-oñetan bere asiera du.


Errenderi-aldera dituen soro ta zelayak eder ta ugaritsubak dira, bañan mendi-aldera dauzkanak malkar ta kaxkarrak. Jaizkibel-mendi

yak beste alderdi gaizto bat ere badu: zuaitzik batere ez izatia. Noiz bete biar ote ditugu gure lege zarrak gai ontan erabaki zituzten asmo ederrak? Ez litzake orduan ikusiko Jaizkibel bezelako mendi soil ta legorrik!

(On litzake lantxo oni Lezo-erri, bere ibai, bere inguru ta bere baserrietako agerkai edo plano bat laguntzia, izen guztiyak garbi jarriyaz geroago, noski, egingo diran lanetara laguntza eraman dezaten.)

\*  
\* \*

Isasti, Lezo'ko seme jakintsubak berak 1625 garren urtian egindako idazti irakurgayan dakarzki Lezo'ko etxe nagusiyen izenak. Ona emen: Lezo aundia, Borda, Sarasti, Isue, Juan de Mundarieta, Darie-



## LEZO'KO BATARIA

ta, Apaizartza (Ien Yartza), Juan Martindegui edo Izagirre, Bizkairenea, Tizunenea, Napartxe, Gabiria, Mitxelkorena, Pelear, Manzia, Abendaño ta Oyanilleta.

Isasi berak dakarzki Lezo aundi ta Borda etxien ikurratz edo armaarriyak.

\*  
\* \*

Lezotar geyenen bizibidia nekazaritza da, ta bere soroetan arto, gari, arbi, baberrun ta sagarra, batez ere, biltzen dira. Arrantzan ere gizon asko ibiltzen dira.

Aspaldiyan, Borda deritzayon tokiyan, lezotarrak gudako ontzi aundi asko egin oi zituzten, eta garai artan, ortan ekiten zuen langille asko zan. Gaurko egunian lantegi ayen aztarrenik ere ezta arkitzen.

\*  
\* \*

Lezo-erriyaren oroipenik zarrena arkitzen degu 1203 garren urteko Ondarrabi-mendeko lurren agiriyan. Bertan ikusten degu VIII garren Alonso'k ematen ziola guda-uri ura *Lazon-izeneko* bati ta bere lagunai bertan bizi zitezen. Aoz-ao ekarritako edestiyak diyonez *Lazon* au *Lezo* aundiko jabia omen zan eta beren lagunak izango ziran, uste danez, inguruko beste etxe guziyen jabiak. Geroztik Ondarrabiya'ko erriko batzarrak lezotarrai garbi erakutsi izan die ango auzotasuna, denai oju egiñaz etorri zitezela erriko artu-eman guziyen argibidiak ikustera.

Lezo ba, Ondarrabiya'ren mendeko bezela urte askuan agertu izan da eta erri onen auzitegiyan ikusi biar izan dira lezotarrak auzi ta naste guziyak. Gipuzko-batzar nagusiyetan ere Ondarrabiya'ren mende agertzen zan.

\*  
\* \*

Ondarrabiya'ri 1203 garren urtian emandako uri-legian Lezo sartuba zegoanezkero Donostiya'ri emandako uri-legia bera dauka, argatik Etxegarai euzkel-idazle argiyak uri-lege onen berri diyon guziya, Ondarrabi ta Lezo'ri ere ezarri diteke, eta bertan ikusiko genduke N parro'ako bakaldun-errege jakintsuak emandako legien babesian erri ayek bizi ta azi zirala.

Lege ori bera eman zioten Getari ta Motriko'ri ere, eta on aundiya ekarri zien.

ISAAC LOPEZ MENDIZABAL

(Amaituko da )

